

PERTSONEN ASKATASUNAREN ETA ESKUBIDEEN ALDE

Iralaren 30ean,
KONTZENTRAZIOAK
Gobernu Ordezkaritza
Guztietan

**NAHIKOA DA
ERREPRESORIK EZ!**



LANAREN KONFEDERAKUNDE NAGUSIA

www.rojoynegro.info
www.cgt-lkn.org

ESTATUAREN ZIGORRIK GABEKO ERREPRESIOAK EZ GAITU ISILDUKO

Demokrazia zuzenerako, askatasunerako eta justizia sozialerako gure idealak, gure duintasuna, beldurrik gabe, ez dituzte eta gu ere ez gaituzte isilduko

Boterea, sistema, Estatuak, bere aparatu guztiak, segurtasun indarrak eta haien justiziaren legezko tresna guztiak, nabarmen areagotzen ari dira zuzeneko errepresioa pertsonen, erakunde eta mugimenduen aurka. Eta, horietan, aldiz, gu era baketsuan borrokatzen ari gara geure eskubideen eta askatasunaren alde, esate baterako, greba eskubidea, manifestazio, adierazpen askatasun.... eskubideen alde.

Horrelako pertsonak eta taldeak ez gaude isiltzeko prest, ezta besoak gurutzatuta egoteko ere, lanetik nola botatzen gaituzten ikusteko, nola lapurtu eta iruzur egiten diguten, etxetik nola kaleratzen gaituzten eta zerbitzu publikoak eta gizarte zerbitzuak nola pribatizatzen dituzten ikusteko, eta nola uzten gaituzten pobrezia gorrian eta gure eskubide laboralak, sozialak eta askatasuna murrizten dituztela ikusteko.

Errepresio arbitrarioaren igoera baten aurrean gaude, bidegabea, indiskriminatua, zorizkoa, Espainiako Estatuan bazter guztietan orokortua. Instituzioen errepresioa da erabateko inpunitatez gauzatzen da, eta probokazioa bilatzen du. Eta, gainera, aspaldiko teknika zaharrak erabiltzen ditu: txanoz burua estalitako poliziak, manifestarien artean infiltratuak... Eta, oinarritzko helburu dute herritarren beldurtzea, protesta bera kriminalizatzea, hala nola disidentzia, desadostasun eza eta aktibismo sozial eta sindikala.

Bestalde, Gobernuak, erregimena, zapaltzeaz gain, antolamendu juridikoa aldatzen ari da trikimailu juridikoak izan ditzan errepresio erabateko inpunitatez gautzearen. Estatu totalitario bati dagozkion legeak egokitzen, onartzen eta erreformatzen ari dira. Izan ere, herritarren bizitzen eta eskubideen nagusi direlakoan daude. Era horretan interpretatzen ditugu Tasa Judizialen Legea, Kode Penalaren erreforma proiektua, Herritarren Segurtasun Legea (mozala legea), Segurtasun Pribatua arautzeko Legea, etab.

Estatuko Gobernuak aurrera daraman errepresioa hain larria denez, Europako

gainerako herrialdeek ere antzeman dute, eta, baita Nazio Batuen Erakundeak eta Amnistia Internacional erakundeak ere. Azken honek 2014ko apirilean egin berri duen txosten batean, “Espainia: protestarako eskubidea, mehatxatua!” izenburukoan, honakoa dio: “agintariak protesta baketsuak itotzen ari dira. Isunek, tratu txarrek, indarraren gehiegizko erabilerak eta gehiegikerien aurrean poliziek duten inpunitateak eragina dute adierazpen eta bilera eskubidean”.

Eta, hala da, milaka pertsona identifikatu dituzte, zapaldu, errepresaliatu, zigortu, prozesatu, auzipetu, isundu, iraindu, kartzelatu, estortsio egin, jo... krisiari eman beharreko erantzun sindikala eta soziala hasi zenetik. Milaka pertsona dira horrela daudenak, 2010eko irailaren 29ko greba orokorrerako deialdia egin zenetik, duela gutxi Duintasunaren aldeko Martxak, 2014ko martxoaren 22koak, deitu zirenetik. Poliziak, indarra modu orokorrean erabiliz, eta beti neurritz kanpo, pertsonak atxilotu ez ezik, autobusak geratu eta miatu ere egiten ditu inolako justifikaziorik gabe, era horretan herritarrak manifestazioetara joan daitezten eragoztearren. Eta, pertsona baketsuak identifikatu eta isunak jartzen dizkiete manifestazioen aurretik eta manifestazioetan bertan, are gehiago, baita manifestazioekin zerikusi ez duten pertsonen ere.

Adibide gisa, 2014an fiskaltzak eskatutako kartzela zigorrak ehun eta berrogei urtetik gorakoak dira, manifestarien eta grebalarien aurka irekitako berrogeitik gorako prozesu penaletan, inplikaziorik eta erruduntasunik izan duten konprobatu gabe.

Gogoratu nahi ditu ditugu duela gutxi erabateko inpunitatez eta era mingarrian errepresaliatu dituzten pertsonen kasuak, eta, bide batez, gure laguntza eta solidaritatea agertu errepresioa jasaten ari diren milaka lagun horiei. Horrela beti gogoan izango ditugu eta borroka egiten jarraitzeko konpromisoa beteko dugu, betiere ahaztu gabe aurretik ikur egin diren kasuak, esate baterako, Bartzelonako Laura edo Vallecasko Alfon Madrilen.

Adibide gisa Carmen eta Carlos del Granada ditugu. Bakoitzari hiru urte eta egun bateko kartzela-zigorra ezarri zioten eta berehala kartzelan sartu behar izan zuten, 15M-an zehar informazio-pikete batean parte hartu zutelako 2012ko martxoaren 29ko greba orokorrean. Bestalde, langileen eskubideen aurka egin zutelako salatu zituzten. Eta epaiketean fiskalak “eredu izan nahi zuen epaia eman zuen, inori antzekorik egitea ez burura ez dakion”.

Beste adibide batean mugimendu guztiak inplikaturik daude eta Europa osoan hedatu da. Kasu horretakoak dira Miguel eta Isma, eta presoaldi prebentiboa ezarri diete hainbat hilabetetan, Duintasunaren aldeko Ibilaldietan parte hartu zutelako 2014ko martxoaren 22an.

Beste kasu lazgarria da egindako 8 urteko kartzela eskaria. Rogerr eta Mercader bizilagun aktibistek greba egin zuten 2012ko 29M-an, eta Sant Andreuko asanbladako greba komitearen informazio-pikete batean parte hartu zuten. Biak erabateko inpunitatez akusatu dituzte, lan egiteko eskubidea eragotzi eta agintariei aurka egitea egotzita.

Bestalde, Experteko kasua dugu, Garraf/AltPenedès eta Baix Penedès eskualdeetan. Prozesuak 10 urte iraun du eta 6 pertsona daude inplikaturik. Pedro Duque eta Soler dira, eta, baita L'Arboc-eko Expert Polymere enpresako lau langile ohi ere. Lantegia itxi egin zuten eta langile guztiak kaleratu zituzten 2004an, eta izandako gatazka hartan neurritz kanpoko karga polizia gertatu zen. Horrela, gutxi balitz, sei horietako bakoitzari hiru urte eta bost arteko kartzela eskatu diote.

Sistema edo erregimen hau zitzu bizian gainbehera doan estatua da, lur jotzen ari da, ustelduta dago, izen ona zikinduta dauka, elitista da, errealitatetik urrun dago eta herritar gehienek sinesgarritasuna galdu du. Baina, sistema indarkeria baliatzen ari da, errepresioa, auziperatze politikoa, eta, bide batez, gu guztiok azpiratzeko, mendekoak garela sentiarazteko, eskubideak eskatzen dituzten herritarrengandik beren burua defendatzeko. Poliziak kaleetan erreprimitu eta zapaldu egiten du, eta, era berean, fiskaltzak errepresioa auzitegiara bideratzen du, estatu totalitarioek berezkoa duten uztartzen ezin hobean.

CGT sindikatuan argi dugu ez dutela lortuko. Milioika pertsona gara zuzeneko demokraziaren alde gaudenok, justizia sozialaren aldekoak, bai, asko eta asko gara, elkarri laguntzeko presta gaudenok haien kontra eta aurrera jo dezagun. Ez dugu etsiko, inputatu eta kartzelatuak izen diren guztiak absolbitu eta aske uztea lortu arte.



CONFEDERACIÓN GENERAL DEL TRABAJO

www.cgt.org.es

www.rojoynegro.info